



[b]

ERR  
E  
KARIA

563. zkia.  
XIII. urtea  
2006ko martxoaren 10a

Julio Arriaga eta Gregoria Elkoroiribe

# Elkarrekin heriotzak banatu arte



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### **Biena**

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 943 74 31 16

### **Etxekit**

Sukaldeak eta bainuak  
Antonio Arrillaga, z/g  
☎ 943 74 43 47

### **Garcia**

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### **Imar**

Erreformak  
☎ 943 53 14 71  
☎ 646 90 55 64  
☎ 609 05 49 78

### **Lodoso**

Leihoak  
Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90

### **Soraluze**

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
☎ 943 74 36 34

### **Ulazia**

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Proiektu eta erreformak

### **Estudios Arrillaga**

Errosario, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

### **Ongi**

Olaso Poligonoa,  
15-68 pabiloia  
☎ 943 74 28 80

### **Pagoaga**

San Antolin, 13  
☎ 943 74 02 79

### **Pagoerrota**

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44  
☎ 659 33 43 23

### **Tellabide**

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
☎ 943 75 50 62  
☎ 607 75 50 62

### **Zaldua**

Urasandi, 26  
☎ 943 74 05 30

### **Zubizarreta instalazioak**

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89  
☎ 650 58 61 44



## Igeltseritza

### **Antonio Markez**

Urasandi, 24  
☎ 943 74 34 18

### **E. Arandia**

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Elektrizitatea

### **Aramar**

Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### **Azpeleta**

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### **Urzelai**

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76



## Pinturak

### **Biok dekorazioa S.L.**

Santa Klara, 26 behea ezk.  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### **Ipintza**

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



## Isolamenduak

### **Glas Control S.L.**

Olaso 27, 47. pabiloia  
☎ 943 74 30 94



## Indusketa lanak

### **Lekunberri Indusketak**

Indusketa eta indusketa txikiak  
Lekunberri baserria  
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32  
koldolekunberri@hotmail.com  
www.excavacioneslekunberri.com



## ZOZOAK BELEARI...

IMANOL LARRAÑAGA

UXUE ALBERDI

Uxue, Nepaleko gazte batek bederazi hilabete daramazki geldu arbola baten kontra eserita. Jan eta edan gabe. Bizirik dago, bai. Tarte honetan lau aldiz mugitu omen da. Sei urte eman nahi ditu meditatzen, eta, egunero-egunero, milaka lagun joaten zaizkio bisitan 16 urteko *buda* txikiari.

Imajinatzen al duzu horrelakorik gurean? Akaso oker egongo naiz, baina hemengo gazteon kezka *lurtarragoak* direlakoan nago. Duela gutxi nire eskuetara jausi zen ikerketa batean ikusi nuenez, 15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteon arazorik nagusienak etxe bizitzaren prezioak eta langabezia dira. Gainera, euskal gazteok miresten dituzuen *jainkoak* ez omen daude goiko zeruetan, kirolean, musikan, zinean edo telebistan baizik.

Ez haserretu Uxue, baina gazte askok astea lotan pasatzen duzuela esan zidan behin irakasle batek. Asteburuetan bakarrik esnatzen zaretela. Lurdes Iriondoren *“gazte gera gazte eta ez gaude konforme”* kontu eta kantu zaharra dela. Baina nire lagun batek dioen moduan, atzoko gazteak hain inkonformistak, bihurriak eta iraultzaileak baldin baginen, zelan laga dizuegu hain gizarte eta etorkizun grisa gaurko gazteoi?

Bertsolari gazte bati entzun nion esaldi batekin lagako zaitut; meditatzeke modukoa da: *“Gazte, ahalegindu lorik ez*

«Gazteon arazo nagusienak etxebizitza eta langabezia dira»

IMANOL

«Guretzat egin duten munduan jaio gara eta ez gaude konforme»

UXUE

*¡Qué ben sabían vivir os vellos! Pero morreron...*

Ai, Imanol, eskertzen dizut aukera eman izana. Kasualitatez esna harrapatu nau zure e-mailak, eta bertsotan bukatu duzunari puntuz puntu erantzungo diot nik:

Gaur egungo gazteok ez ditugu 6 urte pasako arbolapean meditatzen. Hala egingo bagenu, alfer fama jarriko ligukete. Esango ligukete arbola moztu egin behar dela, itzala ez dela errentagarria, diru gehiago ematen duela enbor moztuak. Ez gara Buddha, baina nor da Buddha diruaren, presaren eta itxurakeriaren mundu honetan?

Gu ere, garai denetako gazteak bezala, guretzat egin duten munduan jaio gara. Eta sinistu, ez gaude konforme. Denok ez, behintzat. Baina zer aukera uzten digute? Gaztetxeak itxi egiten dira, artalde-rik irteten den gaztea isilarazten saiatzen da, kontsumismoari, presari, diruari uko egiten dion gaztea kritikatu egiten da. Fri-boloak omen dira zenbaiten kezka nagusiak: etxebizitza eta lana. Baina ze gazte mota interesatzen zaio gobernari? Gazte konprometituak arriskua dira haientzat! Eta asko kritikatu gaituzte, baina, badaezpada, ximurren aurkako krematan dirutza gastatzen dute batzuek...

Muxu bat, hemendik, zerbait aldatu nahi duzuen guztioi. Eta ea geuk nola tra-

Izan zaitez munduan ikusi nahi duzun aldaketa

Mahadma Gandhi

## 600 etxe huts

Gazteontzat etxebizitza bat lortzea ia ezinezkoa den bitartean Elgoibarren 600 etxe huts daude! Sistema kapitalistak esplotazioa du oinarri eta etxebizitza oinarritzko eskubide izatek gure eskura ez dagoen luxu bat bilakatu da. Elgoibarko ehunka gaztek eskuragarri izan litekeen etxebizitza topatu ezinezan dabilzanean, 600 etxe huts daude.

Gazteon batez besteko soldata 720 eurokoa denean, alokairuen salneurrien batez bestekoa 711 eurotan dago. Banketxeek maileguan ematen dituzten 100 eurotik 170 euro kobratzen dituzte.

Honekin inork beteko ez dituen mota guztietako lan prekarioak betetzera, gaur gaurkoan bizitzera kondentzen gaituzte. Egoera honek dituen hutsune emozionalak kontsumo konpultsiboaz konpontzen ditugu eta kontsumo maila horietara behin eta berriz iristeko, lan prekarioetara bultzatzen gaituzte. Izugarria da prekaritate prozesuak dakarren laneko eta eskubide sozialen deusezte.

Elgoibarko gazteria ez dago egoera honetan kasualitatez. Jabetza pribatuaren izenean gure eskubide oinarritzaileak lapurtu eta ondoren saldu egin nahi dizkigute. Gure eskubideen sale-

rosketa egin dute. Nola ulertzen da gazte batek etxebizitza eskubidea ukaturik izatea?

Sozietate kapitalista inposatu digute eta hori aldatu ezina dela ere sinestarazi nahi digute, baina kapitalismoaren pitzadurak mundu guztian dira agerikoak. Ez dugu urrutira joan behar egoera honen erantzuleak ikusteko: gure eskubideen zapaltzaileak inmobiliariak, banketxeak, udaletxea, gobernua... dira, eta horregatik gorriak ikusiko dituzue. Beldurra ezartzen digute. Beldurrez bizi gaitezen boterea kolokan jarri edo protestatzen badugu, baina gazteok hau guztia gainditzeko beharra, erantzukizuna eta indarra dugu.

Borrokaz ukatuak zaizkigun eskubideak gureak eginez, eskuetan hartuz, independentzia esparruak irabazi eta aske bizitzeko gai garelako independentzia aldarrikatuko dugu.

Gazteon eskubideen alde eta gure eskubideen zapaltzaileen kontra borrokatzera deitzen dizuegu.

ELGOIBARKO SEGI

## OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko alean aurrematrikulazio datuak kaleratu genituen Ikasbarren atalean. Elgoibar Ikastolatik bidali zizkiguten datuetan zenbaki bat oker zegoen: bi urteko ikasleak 59 dira, eta ez 29. Beraz, Ikastolan DBHra arte izena eman duten ikasle kopurua 571 da.

## E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zkia.

**[b]arren**

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
S 943 74 41 12 • Faxa: S 943 74 37 04  
Publizitatea: S 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Aier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi Uxue Alberdi Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorostategi, Sare Gumutxaga, Inanol Larrañaga, Ainhoa Iendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maitalen Olazabal, Iban Uizar, Kokoe K.E. Uruzuno, Unai Vileña, Alalitz Vives ESANEA ZAHARRA Gotzon Garateren liburukit INPRIMATEGIA Geru TRADA 4.450 ale. LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jauterantzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## KEXAK

- **Jubilatuen Egoitzako podologia zerbitzuak ez du ondo funtzionatzen:** “Jubilatuei podologia zerbitzua eskaintzen zaie, baina oso gaizki funtzionatzen du. Jendeari txanda ematen diote, baina egun hori iristen denean, beti gertatzen da zerbait eta azkenean, ez dute inor atenditzen. Adin horretako jende askok dauka podologoaren beharra, eta bat baino gehiago azkenean podologo partikularrera joan behar izan dira. Zerbitzua eskaintzen badute, kalitatezkoa izan dadila!”.

- **San Roke kalean auto pilaketa handiak egoten dira egunero:** “San Roke kalean ez dago aparkaleku nahikorik eta egunero-egunero sekulako auto pilaketak egoten dira. Jendeak espaloi gainean lagatzen du autoa, oinezkoentzako bidea oztopatuz. Kiroldegi aurrean, arratsaldeko orduetan ezinezkoa da pasatzea. Bertan garajea daukan jendeak ere arazoak izaten ditu autoa garajetik atera edo sartzeko. Ez dakit zein den irtenbidea, baina zerbait egin beharra dago.”



- **Errosario kalean, erreka ingurua oso zikina dago:** “Errosario kalean, errekan, hodi bat puskatu zen eta zikinkeria mordo atera zen. Hodi hori konpondu dute, baina ez dute ingurunea garbitu, eta dena zikin-zikin dago oraindik. Honelako zikinkeriatik sortzen dira arratoiak eta beste mila gauza. Beranduegi izan baino lehen, garbitzea komeni da”.



## TXALOAK

- **Herritar batek Ongarri Zine Kluba txalotu nahi du:** “Txalotak Ongarriri, osteguneko zine klubeko saioa 21:30etan jarri duelako. Oraingo ordutegiarekin pelikula ikusi ondoren berandu barik etxeratu gaitzke. Bide batez, Ongarri zoriondu nahi dut herriari kalitatezko zinea ikusteko aukera ematen

Atal honetarako kexak, txalotak edo galderak helarazteko:

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Nafarroa enparantza, 2  
 20870 ELGOIBAR

## komikia

## Hil da geru.. el Liceo

Aizu, txinatarrak nitxoak apartamentuak ez direla



Kokoe 050

# Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

## 1970: ikastolako maisu-maistrak gau-esko-

Aurreko astean esan genizuen gau-eskolak klandestinoak izan zirela Franco hil arte. Baina ez zen izan hau arazo bakarra. Izan ere, oso lan neketsua izaten zen gau-eskolarako irakasleak lortzea. Euskara erakusteko prestatuta zegoen jendea behar zen, eta estu ibiltzen ziren baleko jendea topatzeko. Gainera, garai hartarako Elgoibarko Ikastola ere handituz zihoan, eta, hemen ere, arazo handiak izaten zituzten irakasleak topatzeko. Domeketan, autoa hartu eta herriz herri ibiltzen ziren maisu-maistra bila.

Jende faltari soluzioren bat topatu behar zitzaion. Eta buruari buelta bat baino gehiago eman ondoren, asmatu zuten zer egin: ikastolako maisu-maistrak gau-eskolan ere jardutea. Hala, 70eko hamarkadan, ikastolako irakasleak gau-eskolan klaseak ematen hasi ziren. Antton Aranburu, Joxe Lasa eta Txomin Urdanpilleta izan ziren lehenengoak, eta hauen atzetik etorri ziren Alfonso Guilló, Andres Alberdi, Emilio Imaz, Iñasio Garmendia, Marisabel Aizpurua eta konpainia. Ikastolako maisu-maistra ia guztiak izaten zuten zereginen bat gau-eskolan. Eskolak ematen ez bazen, bertako diru-kontuen ardua hartzen zuten.

Hau izan zen gure herriko helduen euskalduntze-alfabetatzean eman zen lehen aldaketa garrantzitsua. Ordura arte borondate hutsean egiten zen lana, profesionalen eskutara pasa zen. 1974-75ean hasi ziren kobratzen gau-eskolako irakasleak. Elgoibarko Izarrako paperetan ikusi dugunez, ikastolako irakasleek hilean 1.000 pezeta kobratzen zuten euskarako eskolak ematearen truke. Aldaketa honekin, besteak beste, seriotasuna eta profesionaltasuna eman nahi izan zioten gau-eskolari. Halere, aldaketa



**MONTSE  
EGAÑA**

AEKKO  
IKASLE OHIA

*Elgoibarren jaiotakoa eta euskalduna da Montse Egaña. Bere aitak euskaraz jakin arren, etxean dena gaztekeraz egiten zuten, ikasketak ere gaztekeraz egin zituzten, eta 18 urterekin euskara ikastea erabaki zuen. Urte mordo eman ditu Montsek euskara ikasten.*

### • Zegatik erabaki zenuen euskara ikasten hastea?

Pilar Ikastetxean haur eskolako klaseak ematen hasi nintzen eta umeekin lan egiteko euskara beharrezkoa zela konturatu nintzen. Alfonso Guilló izan zen nire lehenengo irakaslea.

### • Zenbat urtez aritu zara euskara ikasten?

Asko, baina bizitzaren gora beherak direla-eta, askotan utzi behar izan dut. Iaga eta berriro hasi egiten nuen. Oraindik asko daukat ikasteko.

### • Gustura al zaude lortutako mailarekin?

Bai, baina gehiago jakitea nahiko nuke. Euskaraz pentsatzea gustatuko litzaidake. Oraindik gaztekeraz pentsatzen dut eta itzulpenak egiten ditut. Nire buruarekin borro-

kan nabil beti. Zeretik hasi nintze-la kontuan hartuz, pozik nago. Nire aitak bazekien euskaraz, baina gurekin erderaz egiten zuen. Pena da, txikitatik euskara ikasteko aukera izanik, ez nuen aprobetxatu.

### • Zer egin zitzaizun zailena?

Hitz egitea. Gramatika asko erakutsi ziguten hasieran, baina hitz egitea izugarri kostatzen zait. Askotan lotsa ematen dit eta hori gainditu behar dut. Jende nagusiak kaleko hizkera erabiltzen du eta ulertzeko zailtasunak izaten ditut askotan.

### • Erabiltzen al duzu euskara zure eguneroko bizimoduan?

Umeei dena egiten diet euskaraz. Askotan gauzak gaizki esaten ditut eta beraiek zuzendu egiten didate. Lanean eta kalean ere saiat-

**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

[ AKORDATZEN ]



**MANOLO UNZILLA**

1924an jaioa

«Gerria (2)»

**P**asau gendun Puente Kogantia tren estaziora juateko, baiña abioia zatoren. Portugaleteko ayuntamiento azpizan sartu giñan, eta 40 bonbazo bota zeben. Danok zaku artian, itto biharian, usain bat... urten giñan osorik eta juan giñan estaziora. Goizaldian etorri zan tren bat eta harek eman zigun Karrantzara.

Karrantzan ere kriston bonbardeuak harrapau zigun trenian. Danok lurian zihar trenbidian. Pasau zan haura eta juan giñan hemi txiki batera: Beranga. Han dago barixoa bat, Prades, hemen San Lorenzo modura. Bi edo hiru hillabete egon giñan han. Eskola baten bota lastua luze-luze eta gaiñan izarak Hantxe lo egitten gendun. Behian ereka txiki bat zagan eta hari artian janarixa egitten gendun. Dana basarixa zagan, eta amak

eta laguntzen zeben artuari loria kentzen-eta. Trukian esnia ematen ziguen. Esne edarra, eskuakin apurtzeko moduko natia zaukana. Eskerrak hari, bestela gosiak hil bihar giñan. Han gaozela, gabian abioiak etorri ziran, argixekin, ametrallatzen. Gure ama ya zorauta zagan. Ezin zaban gehixago aguantau, eta Rusiara juteko apuntau zigun. Ama juan zan Santanderera, eta ekari zaban billetia. Transatlántico La Habana zan gure barkuan izena, eta handik hiru egunera juan bihar giñan Santanderera barkuan sartzeko Rusiara juteko. Eskerrak ez giñala juan. Bitartian zerkuia egin zeben tropa nazionalak, eta harppau ziguen barruan. Santanderera jun ezin. Eskerrak han geratu giñala! Bestela zer egingo gendun guk Rusian. Hor ibilli diran moduan. Igual futbolian Rusian naguan oin, apellido eus-

[ GURE ]

Bizkai aldeko hizkeretako ezaugarri-  
xa omen da erakuslien errepikatze hau,  
erakusliak izenaren aurretik eta ostian  
emate hau. Elgoibarko hizkeriak, daki-  
gun bezela, Bizkai aldeko eta Gipuzkoa  
aldeko ezaugarriak daukaz, bixetakuak.  
Gaur aittatzen dogun hau, Bizkai aldekoa  
da, eta Eibarren eta Elgoibarren ondo  
ezagutzen dana, adin batetik gorakuen  
artian bai behintzat.

-a mugatzailliak bezela jokutzen  
dau erakusle honek aurreko berbiare-  
kin. Ikusi daigun nola:

-a amaierako hitzekin: gona + -a = gonia

-e amaierako hitzekin: etxe + -a = etxia

-i amaierako hitzekin: alderdi + -a = al-  
derdixa

-o amaierako hitzekin: mozolo + -a =  
mozolua

-u amaierako hitzekin: katu + -a = katua

Erakusle bikoitz honekin, berdin:  
hau goniau, hau etxiau, haura alderdixa,  
hori mozolouri, hau katua.



**I. URTEURRENA**

2005eko martxoaren 10ean hil zen

**Jose Oteiza Agirregomezkortaren**

oroimenez urteurreneko meza izango da,  
igandean, hilak 12, eguerdiko 12:00etan Parrokian.  
Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



**I. URTEURRENA**

2005eko martxoaren 2an, 65 urte zituela hil zen

**Jesus Sanchez Palomoren**

oroimenez urteurreneko meza izango da,  
larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.  
Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



JULIO ARRIAGA ETA GREGORIA ELKOROIRIBE, 1914AN JAI OAK

## HERIOTZAK BANANDU

*Belaunaldi berriak ohitura, balore eta moral berriekin etorri ohi dira maiz. Ezkontzea bizitza guztirako zen garai ez horren hurrun bateko erakusgarri dira Julio Arriaga eta Gregoria Elkoroiribe. Batak zein besteak 92 urte dituzte, 1914an jai oak baitira, eta 58 urte daramatzate elkarrekin. Hortaz, ezkontuta dagoen Elgoibarko senar-emazterik edadetuena dira.*



“Ezkontza xumea izan zen, 1948. urtean, gerraostean luxuetarako leku gutxi zegoen eta argazkirik ere ia ez daukagu. Zaragozara egin genuen ezkon bidaian ateratako argazki bat da egun haietako oroigarri bakarra”. 1914. urtean jai oak dira Julio Arriaga eta Gregoria Elkoroiribe elgoibartarrak; otsailaren 8an Julio eta otsailaren 25ean Gregoria, Erosario kalean bata eta San Frantzisko kalean bestea. Elkarrengandik horren gertu eta ia 20 eguneko aldeaz jai o ziren bi haur haiek elkar ezagutzera predestinatuta zeuden. Patuak, ordea, bihurtune bat edo beste jami zituen bidean. Gerra Zibil edo gerraoste itxurako oztopoak, eta 34 urtera arte, berandu garaiko ohituretarako, ez ziren ezkondu.

Julio atzean geratzekoa ez izan, eta nola ez, bera izan zen lehen pausoa eman zuena. “Igandetako erromeria edo dantza saioetara joaten hasi ginen eta ezkongai-aldiak ez zuen urte eta erdi baino gehiago iraun. Akorduan daukat elkarrekin bizitzeko alokatu genuen etxeagatik 200 pezeta ordaintzen genituela hilero”.

Ordudandik ez dira banandu, 58 urte egin dituzte elkaren ondoan eta ezkontuta dagoen bikote elgoibartarrak edadetuena izatera iritsi dira. Udal Artxiboko datuei kasu eginez gero, 92 eta 86 urteko bikote bat ere badago eta baita 94 eta 84ko bat ere, baina gure protagonistek 92 udaberri eta 92 negu bizi izan dituzte.

### AITXITXA-AMAMAEN BIZIPOZA

Lehen Mundu Gerra hasi zen urte berean jai o zen bikoteak bizitza luze eta oparoa izan du: bi seme, 3 biloba eta 3 birbiloba dituzte. Estimatu handitan dituzte bilobak eta hauen berri izateak ematen die aurrera jarraitzeko bizipoza. Biloba bat, Jon Arriaga, zesta puntan aritzen da Miamin eta beste bat futboleko Aretxabaletan. Hauen ba-





*Julio eta Gregoria familiaz inguratuta, urrezko ezteiak ospatzen.*

lentrien berriz izateko irrikitan izaten direla aitortu digute.

#### BURDINEZKO OSASUNA

Bai Juliok eta bai Gregoriak burdinezko osasuna eduki dute. Osasun arazoak direla-eta gau bakar bat ere ez omen dute etxetik kanpo egin. "Azido Urikoa berbak zer esanahi duen ere ez dakite" adierazi digu Angel Amiaga semeak. "Zahartzaroko ohiko ajezetaz aparte, oroimena bizi-bizi eta burua argi dute". Zein den honenbeste urte hartzeko sekretua? "Gehiegikeriarik gabeko bizimodua egitean dago gakoa. Aitak, esaterako, jatordu bakoitzaren ostean zigarro bakar bat erretzen zuen. Duela gutxira arte mantendu duen ohitura. Horrez gain, kirolzaleak izan dira. Aita futbolaria izan zen gaztetan; Elgoibar eta Irungo Real Union-en jokatu zuen eta futbola lagatakoan, mendizaleak izan gara etxean gurasoei esker" gaineratu digu Angelek. "Hala ere, loteria bat da horrenbeste urte bizitzea, zorte kontua. Askok dira zaintzen direnak, neuria arau dutenak, baina horrek ez dizu luzaroan biziko zarenik ziurtatzen"

Are gehiago gerra zibil bat ezagutzea tokatu zaion belaunaldikoa izanez gero, Juliok bere azalean ezagutu zuen gerraren gordintasuna. Euskal nazionalisten milizian, hau da, Euzko Gudalosteko "Amayur" batailoiko kidea izan zen Gerra Zibilean eta 1937ko abuztuan preso hartu zuten Iaredon. Lehen bi hilabeteak Castro Urdialesen egin zituen preso eta handik Santoñako in-

fanteria koartelera eraman zituzten. Iau sardina eta ogi puska bat jenez biziraun zuten egun luzetan, egoera penagarrian. Gero Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura aldatu zituzten. Bi hilabete eta erdi pasa zituen bertan. Azkenik, beste bi hilabete egin zituen Oteiza de Solanan, langileen batailoian demigortutako beharrean. Horrelako gertakariak izugarri baldintzatzen dute persona baten bizitza eta Juliok

detaile guztiak momentuan bizitzen ariko balitz moduan gogoratzen ditu.

#### AFIZIOAK

Gregoria eta Julio bakarrik bizi eta moldatzen dira. Iggailurik gabeko hiruganen pisu batean bizi direnez, gutxi ateratzen da Julio kalera, bietan ahulago dagoena baita. Gregoria erosketak egiteaz arduratzen da eta Julio, soziedadean hartutako ohitura eta eskuari esker, sukalde kontuetan aritzen da. Semeen bizi-tez gain, Josefina auzokoak asko lagundu izan die beharra izan dutenean. Esku pilota eta futbola telebistaz ikustea gogoko dute eta musika klasiko zale porrokatuak dira. Telebistatik ez eta etxeko erregea irratia zen garaian, Radio Torinon botatzen zituzten operak entzunez zaletu ziren.

Familia klasikoaren balore tradizionaletan hezi ditu semeak senar-emazte honen; aitak ekartzen zuen dirua etxera eta amaren ardura ziren etxea eta haurren heziketa. "Guztiaren gaineratik ondratuak izaten irakatsi digute" azaldu digu Angel semeak. Azkenik, horrenbeste urtez elkarrekin bizitzeko sekreturik ez dagoela argitu digute, "elkarrenganako errespetuan oi-



## [ PROTAGONISTA ]



3 dimentsioko ohian modalitatean 2 proba jokatu ondoren, Jaime Martínez arkulari elgoibartarra Euskal Ligako liderra da. Proba hauetan hiru dimentsiotako animalien irudiak jartzen dira ohian batean; hartzak, leoiak, oreinak... eta arkulariek geziak jaurtiz jo behar dituzte irudi hauek. Animalia zein lekutan jotzen den arabera ematen dira puntuak. Jaime Martínez Ordizia Klubeko kidea da eta beraiekin hartzen du parte. Euskal Liga amaitzeko beste bi proba falta dira, eta dagoeneko, 20 puntuko alde dauka bigarren sailkatuarekin. Beraz, Elgoibarko arkularia da

## [ NOTIZIA ]

### Emakumearen Eguna ospatzeko ekitaldiak hilaren 17an amaituko dira

Joan zen marxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zen. Urtero bezala, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna aldarrikatzeko ekitaldiak burutu ziren, bai mundu mailan, Euskal Herrian eta baita Elgoibarren ere. Gazte Asanbladak antolatuta, kontzentrazioa izan zen iluntzeko 20:00etan King-Kong-en. "Sexismoari kaña" lemapean bildu ziren hainbat herritar, eta beraien helburua, emakumearen kontrako zapalkuntza salatzea izan zen. Bestalde, Haizea Emakume Taldeak antolatuta, hiru hitzaldi entzuteko aukera izan dugu aste honetan.



izango da bihar, martxoak 11, Sigma ja-tetxean. Maite Franko aktore eta ipuin-kontalariak alaituko du afalostea.

Bestalde, Haizea Emakume Taldearen eskutik, zine forum-a izango da Kultur Etxean, datorren ostiralean, martxoaren 17an, gaueko 22:00etan.

#### Afaria eta zine forum-a

Emakumearen Nazioarteko Eguneko ospakizunekin bukatzeko, afari herrikoia

## [ ZENBAKIA ]

# 100

2005. urtean 100 hileta egin ziren Elgoibarren. San Bartolome Parrokiak 2005ean izandako diru kontuak eta beste hainbat datu kaleratu ditu, eta bertan aurkitu dugu iazko hileta kopurua. Jaiotzak ere 100 izan ziren 2005ean, beraz, demografiak ez du gora behera handirik izan gure herrian.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Astearte beltza izan da aste honetako. Argazkian ikus daitekeen lubiziaren eruz Elgoibar eta Eibar artean ez zen trenik pasa martitzenean. Maltzagatik gertu, Karakate tunelaren irteeran jauzi ziren harrin aurka talka egin zuen trenak astelehen iluntzean. 30 bidaiarietatik, inor ez zen zauritu. Euskotrenek 20 orduz eten zuen Elgoibar eta Eibar arteko tren zerbitzua. Ia pare berean, baina N-634 errepide nazionalean, hiru autok istripu gogorra izan zuten 14:30ak aldean. Emaitza: bost zauritu, bi larri eta

## San Bartolome parrokia margotu eta garbitu dute



San Bartolome parrokia berritzeko lanak bide onetik doaz. 20 egun inguru itxita egon ostean, dagoeneko, berreskuratuta dute eguneroko martxa. Baruko aldean, erdiko nabean egin dituzte aldaketak garrantzitsuenak: hormak margotu, erretaulak garbitu eta elizako apaingarri guztiei hautsa kendu zaie. Kanpoaldean, berriz, balkoiari erdoila kendu zaio eta margotu egin da.

Elgoibarko parrokia berritzeko lanak 90. hamarkadan hasi ziren. Heritarrek dirulaguntza handiak eman zituzten orduan, eta fatxada guztia garbitu zen.

### Erretaula nagusia

Parrokiko obrak bukatzeko, ordea, bertako elementurik garrantzitsuenak berritzea falta da, erretaula nagusia, hain zuzen ere. 1791. urteko erretaula neoklasikoa da. Zati batzuk garbitu izan dira, baina bertako figurek hauts asko daukate. Luis Bilbaok esan digunez, Foru Aldundiko teknikari espezializatuak erretaula ikustera etortzeko zain daude: "ez dakigu noiz etorriko diren. Gure nahia lehenbailehen dena bukatzea da, laster pare bat ezkontza ere izango ditugu, eta altare nagusia ganoraz egotea gustatuko litzaiaguke".

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Manifestazioa bertan behera

"Euskal herritarren erabakia errespetatu" lemapean biharko deituta zegoen manifestazioa bertan behera gelditu da. Elgoibarko Ezker Abertzaleak, bihar arratsaldean Portugaleten egingo den manifestaziora joateko deia luzatu nahi die heritar guztiei. Kartzelan hil dire Roberto Saiz eta Igor Angulo euskal presoen aldeko manifestazioa izango da.

### Jubilatuen Egoitzako taberna

Udalak Jubilatuen Egoitzako tabernaren kudeaketa lana atera du lehiaketara. Interesatuak Udaleko Gizarte Ongizate Sailean jaso dezakete informazio gehiago, eta lehiaketako pliegoak ere bertan jaso daitezke, asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara bitartean.

### Bidezko Merkataritza

Parrokikiako Misisio Taldeak antolatzen duen Bidezko Merkataritzako dendak berriz irekiko ditu ateburu honetan. Interesatuak, bihar larunbata, eta igandean goizeko 10:00etatik 13:00etara Merkatu Plazan daukaten lokalera hurbilatu daitezke.

### Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko hiru txekere banatu dituzke Merkatu Plazako saltzaileek. Alfredo Perez, Luis Alberto Bellota eta Idoia Barrenetxea izan dira irabazleak. Saria erosketa txekere bidez jasoko dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



## Herriko hiru errotondatan lorezaintza lanak egingo dira



Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak herriko hiru errotonda apaintzeko akordioa lortu dute. Honela, Kimu Bat enpresako langileak izango dira errotondetako lorezaintzaren arduradunak. Txankakuako errotondan hasi dira lanean, eta gero, Madalako eta Melitongo errotondak apainduko dituzte. Elgoibarko Udal Taldeak hiriguneko egitura hobetzeko konpromisoa hartu zuen eta hori lortzeko lanean hasi da. Era berean, udalerriko bizilagunen bizi kalitate hobea bermatzeko asmoa daukate.

Emakumeek ia hiru ordu gehiago ematen dute egunean, etxeko lanetan eta nagusiak zaintzen.

## Zeinek egiten ditu etxeko lanak zuenean?

ANE GORRITI  
Ikaslea  
13 urte



} Nire gurasoek, lanak banatuta dituzte eta bien artean egiten dituzte. Nik batzutan jasotzen dut nire logela, baina amak errieta batzuk egiten dizkit, ez pentsa!~

ANE GURRUTXAGA  
Bidai agentea  
34 urte



} Nik. Goizez lan egiten dut eta gero etxeko lanak egiten ditut. Nire senarrak laguntzen dit apur bat, baina oso gutxi. Saiatu naiz lanak banatzen, baina alperrik da~

IBON GOIKOETXEA  
Ikaslea  
10 urte



} Amak eta aitak, bien artean egiten dituzte, baina amak gehiago egiten du, berak ere kanpoan lan egiten duen arren. Nik ere batzutan laguntzen diet, baina

ISMAEL ARENAS  
Jubilatua  
57 urte



} Nik. Emazteak dendan egiten du lan eta ni arduratzen naiz etxeko lan guztiaz. Erropak garbitu, eskegi, aspiragailua pasatu... Plantaxatzea kostatzen zait gehien.~

## [ BAI ala EZ? ]

Politikan emakume gehiago balego, mundu hobea izango al genuke?

**BAI %67**

} Emakumeek beste sentsibilitate bat daukate eta gauzak apurtxo bat hobeto egingo lituzkete, edo ez lituzkete hain ekintza basatiak egingo, eta horrekin denok irabaziko genuke.

**EZ %33**


} Ez. Politikariak beti politikari; hemen eta Zinbawen, zintzilikariorik izan edo ez. Politika beraren izateak, funtsak, galarazten du mundua hobeto joatea.~

Datorren asterako... Hilabeteko epean 3 istripu izan dira Madalako errotondan.  
Arriskutsua iruditzen al zaizu Madalako errotonda?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

SMS kostua: 0'90 + B.E.Z.-a.



Hurrengo hilean 2 pertsonentzako zirkuito bat zozketatuko dugu Kresala hotolean. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago! [www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)



## XABIER ORTUETA AFMKO ZUZENDARIA

# «Makina erremintaren sektoreko azken bi urteak oso zailak izan dira»

*Martxoaren 6tik 11ra Makina Erremintaren Feria izan da, aurten Barakaldoko Erakustazokan. Aurreko edizioetan bezalaxe, Elgoibarko ordezkari mordoia izango dira bertan, euren lanak aurkezteko. Guztira 1.752 enpresa izango dira azokan. Gaurkoan Xabier Ortueta, AFMko zuzendariarekin hitz egin dugu, azoka bera eta Makina Erremintaren sektoreak bizi duen egungo egoeraz.*

### ® Zer da AFM?

AFM makina erreminta ekoizleen elkarte da, 1946 urtean sortua. Gure lana makina erreminta sektorearen bilakaera bultzatzea da. Bestalde, makina erreminta sektorearen ordezkari gara eta haren interesak gordetzen ditugu.

### ® Zenbat enpresa daude AFMn ordezkaturak?

AFMk 95 enpresa batzen ditu, estatu mailako ekoizpen guztiaren %93a ordezkatzeko. Elgoibarko 12 enpresa daude gure elkartearen. Estatu mailako ekoizpenaren %17,6a da hori, langileen %18,7a, enpresen %10,3a eta esportazioaren %20,6a. Ohituta gaude dagoeneko, baina zifra txundigarriak dira.

### ® Zein da makina erremintaren azokaren helburua?

Azoka baten helburua, mendeetan zehar beti berdina izan da: ekoizle eta erosleak batzen diren topagunea da. Zentzu honetan, BIEMH bezalako azoka bat, horixe da baina sofistikazio maila biderkatuz. 55.400 m<sup>2</sup>ko lokalean, era guzti-tako ekoizpen sistema eta makinak, enpresen azken berrikuntzak, zentro teknologikoak... ikus daitezke. Dena bezeroaren beharren ikuspuntutik. Gure sektorea inbertsio sektorea da eta azokan ikusten diren ekipamenduak ezin dira normalean ikusi. Gure

enpresentzat gainera, BIEMH gure azoka da, gure sektorearen berrikuntzak munduari hemen erakusten dizkiogu lehenengo aldiz. Bestade, barne merkatuko bezero garrantzitsu guztiak gurera datoz. Mundu mailan, aurten egingo diren makina-erreminta azokaren artean tamainaz hirugarrena da. Munduan 4 azoka bakarik daude BIEMH baino haundiagoak.

«Sektoreko ekoizle eta erosleen topagunea da Bilboko azoka»

### ® Makina erremintak 10 urtean behin krisia jasaten omen du.

Nik ez dut errepikatzen diren zikloetan sinesten. Egia da 10 urtero, historikoki krisia etorri izan zaigula eta horrela izan da 2001etik aurrera ere. Arrazoiak bakoitzean desberdinak dira. 1991 eta 1993 arteko krisiak ekoizpena erdira eramanez, enpresa ugari bidean itxita. Oraingoa al-

daketa estrukturala dela esan daiteke, mundua aldatu egin da eta horrek egoeraren interpretazio berria behar du. Ekoizpenaren zati handi bat lekuz mugitu da, eta guk ekoizleei saltzen diegunez, beraiekin mugitu behar gara. Konpetitibitate arazoa da dena. Ez da bide erraza eta lan asko dago egiteko, baina aurrera egingo dugu, ziur nago.

### ® Nolako izan da 2005eko produkzioa?

Azken bi urteak oso zailak izan dira, kompetentzia asko zorrotzu baita. Hala ere, ekoizpena aurten %11,8 igo da eta esportazioa %19,9. Enpresa guzti-tzat ez da berdina izan, askok mantentzeko zailtasunak izan dituzte. Hala ere, egoera hobetu egin da. Aurten zifrak mantentzea espero dugu, eta ahal bada, pixkat haztea.

### ® Zein da krisitik ateratzeko bidea?

Krisi guztiak desberdinak dira, eta oraingo egoerari aurre egiteko, oraingo ekintzak behar dira. Iaz bukatu genuen gure Gogoeta Estrategikoa 2005-2010 epe-rako. Horrekin, ekintza sorta bat planifikatu ditugu sektorearentzat. Ekintza horien protagonistak enpresak dira. AFMren funtzioa, enpresen elkarlanari esker ekintzen emaitzak biderkatzea da. Guk enpresak ados jarri behar ditugu, elkarlana bultzatu eta aldatetarako probokatu.

## IN LEIKE-KO EUSKARA TALDEA

# ERRELEBOAREN ORDUA

*In Leike-ko Euskara Taldean erreleboaren ordua iritsi da. Bi urte inguru daramatza talde honek desagertuta eta beraien nahia beste taldetxo bat sortzea da, beraien hasitako lanari jarraipena emateko. Mendaro herri txikia da, baina ba omen dago euskara talde baten beharra. In Leike Taldearen barruan alor desberdinak jorratzen dira. Mendi Taldea eta Begirale Taldea martxan daude oraindik, baina Euskara Taldea behea jota dago. Gaurkoan, In Leike-ko Euskara Taldeko Nerea Larrañagak egon gara eta berak kontatu dizkigu egungo egoeraren nondik norakoak. Norbaitek Euskara Taldea sortzeko gogoia badu, 665 72 04 32 telefonora deitu dezake.*

**M**endaroko lagun talde baten ilusiotik sortu zen In Leikeko Euskara Taldea. 1999. urte inguruan, zazpi lagun elkartu eta Mendaron euskararen alorrean bazegoela zereginik konturatu ziren. Helburua bakarra: euskara indartu eta bultzatzea. Lanak, asko. Honela sortu zen Euskara Taldea, eta lan txukuna egin dute euskararen normalizaziorako bidean.

### EGUNGO EGOERA

Nerea Larrañagak esan digunez, In Leike-ko Euskara Taldeak etapa bat bete du eta beste etapa berri baten atarian dago: “guk ziklo bat bete dugu eta ziklo hori bukatu da. Euskararen alde lan egin dugu hainbat urtetan, ekintza desberdinak antolatuz, baina gure lana bukatu da”.

Argi eta garbi esan digu Nereak: “erreleboaren ordua iritsi da. Gu hasi ginen, eta orain beste talde batek hartu behar du gure testigua. Gu aritu ginenean ez zitzaigun inor hurbildu, baina urte batzuk pasatu dira, eta une egokia izan daiteke beste talde bat sortzeko”.

### ILUSIOA, EZINBESTEKOA

“Mendaro herri txikia da, eta orokorrean euskalduna dela esan daiteke”, esan digu Nereak: “ezagutza aldetik herri euskalduna dela uste dugu, jendeak badaki euskaraz, eta ez dakitenean seme-alabak ere euskaraz ikasten dute, Mendaron Ikastola bakarrik baitago”. Hala ere, euskararen erabileran hutsuneak sumatzen direla aipatu digu, eta euskararen

normalizaziorako bidean, oraindik ba omen dago zereginik. Beharrezko baldintza moduan, ilusioa eta lanerako gogoia aipatu dizkigu Nereak: “inork ez du euskararen ardurarik hartzen Mendaron. Gure taldeak hasitako lanak jarraipena behar du eta hometarako ilusioa eta lanerako gogoia ezinbestekoak dira. Hasi ginenean gu ere gazteak ginen, esperientziarik ez geneukan, baina euskararen alde lan egiteko ilusioa soberan. Horrek bultzatu gintuen ekintza desberdinak burutzera”. Nerea Larrañagak ez du erreleboa gertu ikusten, baina aukeraren bat

egon daiteke: “badakigu Mendaroko gazte batzuk Institututoko Euskara Taldeko partaide direla, eta hortik beharbada etorri daiteke erreleboa. Zaila ikusten dugu, baina, aukera polita izan daiteke”.

### EGINDAKO LANAK

In Leike-k kultura alorrean egin ditu lan gehienak. Nerearen hitzetan, “kulturan hutsunea zegoen Mendaron, ez zen gauza askorik antolatzen, eta guk hartu genuen horren ardura”. Besteak beste, antzerkiak, haurrentzako kantaldiak, bertso afariak, Korrika... antolatu zituzten. Euska-

## In Leikeren ekintzak



Euskaltegian.

Mintzale



*In Leike-ko Euskara Taldeko kideak.*

raren alorrean lanik garrantzitsuen ere, beraiek egindakoa da: "Elgoibarko AEK-rekin elkarlanean, euskaltegia sortu genuen Mendaron. Harrera oso ona izan zuen. Orain Udalak dauka horren ardura. Gerora, mintzalaguna egitasmoa jami genuen martxan, eta oraindik ere badabil taldetxo bat programa honetan". Euskara Taldetik, bestalde, Begirale Taldea sortu

zen, eta honek urtero antolatzen ditu haurrentzako hainbat ekitaldi Gabonetan eta uda aldean.

#### ESPERIENTZIA POSITIBOA

Nerea Larrañagak aitortu digunez, esperientzia oso positiboa izan da Euskara Taldearen jarduna: "gauza asko ikasi genuen eta jende berria ezagutzeko aukera bikaina izan zen. Bestalde, guk antolatutako

ekintzetan herriak ondo erantzuten zuela konturatu ginen, eta hori sekulako satisfazioa izan zen guretzat. Oso gustura gaudere egindakoarekin, orain bidea libre uzten dugu". Esan digunez, norbait ereleboa hartzeko prest baldin badago, beraiek edozertan laguntzeko prest omen daude. Gainera, "In Leike-k izena dauka, dirulaguntzak lortu daitezke ekitaldietara-



*Korrika.*

# GAZTIA NAIZ

GaZtE teRtulia...

## MARTXOAK 8

JOAN ZEN ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 8, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA IZAN ZEN. EGUN HONETAN, ALDARRIKAPEN DESBERDINAK EGIN ZIREN, BAI MUNDUAN, ESTATU MAILAN, EUSKAL HERRIAN ETA BAITA GURE HERRIAN ERE. HAI-ZEA EMAKUME TALDEAK EKINTZA DESBERDINAK ANTOLATU DITU ETA GAZTE ASANBLADAK ERE EMAKUMEEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO KONTZENTRAZIOA EGIN ZUEN. GUK ERE, LEKUA EGIN NAHI IZAN DIOGU GAI HONI. GAURKOAN, BI EMAKUME GAZTEREKIN HITZ EGIN DUGU. EMAKUMEA IZATEA ZAILA BADA, EMAKUMEA ETA GAZTEA IZATEA ARE ZAILAGOA DA GAUR EGUN. MI-

**Martxoak 8 bezalako egun bat egutegian egoteak, zer esaten dizue?**

**Ibabe:** Ez dut atsegin horrelako egun bat egutegian ikustea, egunero izaten da emakume langilearen eguna! Hala ere, gauzak oraindik oso oker daudela salatzen da egun bat da.

**Miren:** Egia esan, Gazte Asanbladan dudan egun ginen egun zez-

hatz honetan zerbait egin edo ez. Denok dakigu egun hauek, batez ere, instituzioen aldetik itxurakeriak egiteko oso baliagariak direla. Justu horregatik azkenean kalera ateratzea erabaki genuen.

**Gaztea eta emakumea izateagatik zailtasun gehiago al dituzue bizitzan?**

**I.:** Gauzak aldatzen doazela dirudien arren, duda barik, zailago daukagu. Emakume batek gi-

zonezko baten bakoitzak gehiago erakutsi behar du bizitzako aspektu askototan

maila berdina

izateko.

**Jasan al duzue emakumea eta gaztea izateagatik diskriminaziorik?**

**I.:** Detailtxoetan bai, batez ere, adin batek aurrerako gizonetakoekin. Neska izateagatik hainbat gauza egiten ez bagenek bezala tratatzen gaituzte. Purrandan ere gerta daiteke gehiegikeriak edo lizuneriak jasatea; tabernetan irteetan mutil koadrila batek inguratu eta ipurdia ukitzea bezalakoak. Tabernetara joan eta aldizkari gehienak emakumeak tiki bistan daudenak izateak, pentsamolde matxista areagotu besterik ez du egiten, neska-estereotipoak sortuz eta emakumea sexu-objektu bezala tratatuz.

Idea sexistak oso bameratuak ditugu eta normalizat jotzen ditugu sarritan.

**M.:** Bai, detaile asko jasaten ditugu eta gehienak oso inkonjuzienteak eta normalizatuak dira, egungo mekanismo sexistak oso sutilak dire-

lako. Gainera, eskubideak lortu izanagatik, berdintasuna saldu digute eta guk hala bizitzen dugula eta egoera normalizatzen dugula. Gure ingurune-





## Emakumearen Nazioarteko Eguna

an eremu askotan diskriminatzen da. Txikitik gure rola erakusten digute, neska edo mutila izategatik ezberdin tratatzen gaituzte, urdinez edo arrosaz janzen gaituzten unetik, liburuetan, ipuinetan, markatzen diren estereotipoetara, komunikabideek ere, gure gorputzak nolakoak izan behar diren agintzen digute eta gainera emakume perfektuaren rola saltzen digute: ama onak, langile onak eta emazte onak izatera iritsi behar garela exijitzen digute.

**Aldi baterako lanetan, %97a emakumeak eta gazteak dira. Zer daukazue esateko honen inguruan?**

I.: Emakume batek gehiago erakutsi behar duela normalean, postu bera betetzeko.

M.: Politika neoliberalak eta pribatizazioak sortzen duten erregulazio faltak "indartsuenei" ematen die boterea eta sozialki ahulnak kontsideratzen direnak baldintza txarra goetan egotea dakar. Horregatik, prekaritate egoera lanienak, etorkinek, pobreenek, gazteenek, kasu batzutan zaharrenek eta emakumeek jasaten ditugu. Emakumea eta

**“Errespetua eta parekotasuna aldarrikatuko ditugu”**

IBABE

gaztea izanik, diskriminazio bikoitza jasaten dugu.

**Familia barruko rolek sexistak izaten jarraitzen al dute?**

I.: Bai. Etxe askotan ama da kanpoan eta etxean lan egiten duena, etxea txukundu, arropa garbitu, zintzilikatu, jatorduak prestatu, erosketak egin, etxeko gaixo edo zaha-

retaz arduratu... Gainera, etxeko lan hori ez da baloratzen, gauzak eginak egon behar dute, eta kitto! Semeek aitaren rola eta alabak amarena hartzen dute normalean. Hau txikitatik ikasten den zerbait da, samitan umeen jostailu sexistak ikustea besterik ez dago, rol batzuetarako prestatzen gaituzte! Heziketa kontua da dena.

M.: Gaur egungo famili ereduetan aniztasun handia dago eta rolak asko aldatu dira. Dena dela, emakumea eremu publikoan sartu den arren, etxeko lanak eta zaintza rolak oraindik genero femeninoarenak kontsideratzen dira. Nahiz eta lanak gehiago banatzen diren, "antolatzaile rola" edo etxean ardurak eramaten dituen emakumea da.

**Zuen inguruko mutilek zer pentsatzen dute gai honetaz?**

I.: Denetarik dago. Batzuk, pentsamolde arrerakoia erakusten dute, eresperezkoa. Beste batzuk, oso bameratuta dituzte rolak eta estereotipoak.

M.: Nesken artean bezala, denetik dago. Neska eta mutilak arduratzen dituen gaia da eta gauza batzuekin jendea oso kontzientziatuta ikusten dudana arren, orokorrean, rolak eta estereotipoak oso errotuta dauzkagu eta modu inkonzienteen jarrera sexistak izaten ditugu. Dena den, sistema patriarkalak ez du emakumea bakarrik zapaltzen, gizonezkoari ere estereotipo maskulinoak jarraitu beharra ezartzen dio eta hori ere zapalkuntza da. Adibidez, mutikoak hezitzailekoan askoz gutxiago laguntzen zaie sentimentuen adierazpena lantzen.

**Zein dira Gazte Asanbladatik egingo dituzuen aldarrikapenak**

I.: Errespetua, parekotasuna! Borroka honetan, emakumeak bere buruarekiko izan behar duen autoestimik garrantzia handia du.

**Non dago egoera honen sustraia?**

I.: Jasotako hezkuntzan eta etxeetan ikusten diren gauzetan.

**“Emakumea eta gaztea izanik diskriminazio bikoitza bizi dugu”**

MIREN

M.: Botere harremanetan ere: emakumea, eman kumea eta gizona, gizon ona.

**Egoera hau aldatzeko, zein pausu eman beharko lirateke?**

I.: Gizartea kontzientziatzea ezinbestekoa da, kritikoa izatea eta, batez ere, hezkuntzan lana egitea.

M.: Hezkuntza eragileek lan handia daukate etorkizuneko pertsonak hezten, gizarte jus-

### Datu adierazgarriak

- Gazteon lan kontratuen %95 behin behineroak dira.
- Lan bera egiteagatik, %36 gutxiago kobratzen dute emakumeek.
- Kontratu gabeko gehiengo 16-24 urte bitartekoak dira eta gehienak emakumeak.
- Lapurdi. Behe Nafarroa eta Zuberoako 16 eta 24 urte bitarteko gazteen langabezi tasa %27koa da eta Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoakoena aldiz %21,2koa.
- Aldi baterako lanetan, %97 gazteak eta emakumeak dira.
- Gazteon batz besteko soldata 720 euro-takoa da eta alokairu baten batz besteko prezioa 711 euro-takoa.
- Unibertsitate tituludun gizonezko langabezi tasa %7,8koa da eta emakumeena aldiz %11,6koa.
- Sexu eraso denuntzien %64, 27 urtetik beherako emakumeak eginak dira.
- Lantegietan, kontratu okerrenak eta egoera okerrenetan egoteaz gain, eraso sexistak ere jasan behar dituzte askotan.

Iturriak:

Gaztesarea.net, Emakunde eta Bilgune Feminista

EUSKAL DANTZAK

11 herritar Elgoibarko Auresku eta Soinu Zahar Txapelketan



Auresku eta Soinu Zahar doinuz beteko da asteburu honetan Herriko Antzokia. Oholtza gainean, berri, dantzari gaztetxoek hanka eta gerri buelta arinak nabarmenduko dira. Elgoibarko V. Auresku eta Soinu Zahar Txapelketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da bihar, hilak 11. B saileko (11-15 urte) neska-mutilek irekiko dute txapelketa. Mutilak "Desafioa" eta "Alpargatak" doinuak dantzatzuz hasiko dira. Josu Espilla izango da elgoibartar bakarra. Neskek "Ehun Dukat" soinu zaharra eta "Uztai Txikia" zortzikoa dantzatu beharko dituzte. Dorleta Fernandez, Maria Ferreiro eta Amaia Astigarraga izango dira gure herriko ordezkariak. Orain arte txapelketa bakarrean parte hartu dute, Beasainekoan hain zuzen ere, eta Maria Ferreiroren laugarren postua izan zen aipagarriena.

Domekan, hilaren 12an, A sailekoen (7-11 urte bitartekoak) txanda izango da 11:00etatik aurrera. Mutilek "Agurra" eta "Alpargatak" dantzatzuko dituzte. Elgoibartartik Asier Odriozola, Itoiz Vitores, Mikel Zúñiga eta Asier Garmendia arituko dira. Mikel Zúñigak eta Asier Garmendiak 3. eta 4. postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren, Azkoitiako lehiaketan.

Nesken mailan hiru elgoibartar arituko dira: Nerea Badiola, Itziar Aldalur eta Arantxa Ferreiro. Aurten dantzatu duten lehiaketa bakarrean lehen postua lortu zuen Arantxa Ferreirok eta 4. postua Itziar Aldalurrek.

Gauzak horrela, Gipuzkoako dantzari onenak zuzenean jarraitzeko aukera izango da Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatzen duen txapelketan.

Zaragozara eta Txuri Urdinera irteerak Atxutxiamaika eta Gaz-Trekin

Atxutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldeek pare bat irteera antolatu dituzte martxo-rako. Lehenik, Donostiako Txuri Urdin izotz pista joango dira martxoaren 18an. LH 4-5-6 mailetakoko ikasleei zuzendutako irteeran trenez joango dira hiriburura. Irteera eguerdiko 12:00etan izango da tren geltokitik. Bestalde, martxoaren 25etik 26ra Zaragozara irteera antolatu du Atxutxi. DBH 1-2-3-4 mailetakoko ikasleei zuzenduta dago eta 60 euro ordaindu beharko dira. King-Kong-eko autobus geltokitik aterako dira goizeko 8:00etan. Informazio gehiago honako telefonoan: 943 74 16 26 (Nagore).

Labeko esmalte ikastaroa

Egur Arte Tailerrak labeko esmalte ikastaroa eskainiko du martxoaren 13tik 30era bitartean. Guztira 30 orduko ikastaroa izango da astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:30era. Egurrek Aita Agirre plaza z/g duen egoitzan eman daiteke izena 18:00etatik 20:00etara bitartean.

"Bazen behin zirkoa" haurrentzako ikuskizuna domeka honetan Herriko Antzokian



"Zirka Zirkus" lehen lanaren ildo beretik; antzerkia eta zirkoa uztartzen dituzten "Bazen behin zirkoa" bigarren lan honek ere: akrobaziak, malabareak, musika, oreka jokuak, globoflexia, e.a. Honez gain, irakurtzea zein dibertigarria eta aberasgarria ("altxor bat aurkitu dute,

milaka ipuin milaka lagun...") den erakutsiko diete gaztetxoek. Betiere, nola ez, umore klabearekin, Bolitxe fakirra, ekilibrista eta Loretsu mago, funanbulistarekin malabareak, akrobaziak eta kantu berriak nahasiko dira. Saioa 16:30ean hasiko da Herriko Antzokian.

MICHEL GONZÁLEZ GSI TALDEKO ZUZENDARI KOMERTZIALA



*Michel Gonzalez GSI Taldeko zuzendari komertziala da. Enpresa honek zerbitzu osoa eskaintzen du gai inmobiliarioetan (ondasun higiezinekin lotutako gaitan) eta Residencial Geminis-ek sus-tatuta 48 etxebizitza berri eraikiko dituzte Elgoibarko er-*

## «Residencial Geminis-ek eraikuntza-jarduera berritzailea eta ongizatea ekarriko du elgoibarrera»

Zer ezaugarri ditu GSI Taldeak Elgoibarren egin behar duen proiektuak?

Elgoibarko erdialdean, Santa Klara kalean, hain zuzen ere, 48 etxebizitza berri eraikiko ditugu. Diseinu modomodun lau solairuko eraikuntzak izango dira, 2 eta 3 logelako etxebizitzekin. Beheko solairuetatik lorategi pribatueta sarbidea egongo da. Gainera, lurrazpiko bi solairu bameraturik ditu eraikinak. Hauetan, 117 garaje partzela eta 76 trasteleku daude.

**Ze fasetan aurkitzen da proiektua?**

Datozen egunetan Geminis lantegia izan zen eraikin zaharra botako dugu, bertan etxebizitza berriak egiteko. Prozesu honek ongi zaindu eta gainbegiratutako operazio logistikoa eskatzen du, eraipen-obra ahalik eta modu ekologikoenean egingo dela bermatuz. Bertatik ateratako materialak bereiztu eta sailkatu ondoren birziklatu egingo dira.

**Eta guzti hori GSI Taldearen bermearekin?**

Bai, noski. Proiektu hau GSI Taldearen enpresa batek eta TEC, GSI Taldean agentzia in-

mobiliarioak Infolur-en bitartez egingo dute, hortaz, berme guztia du.

**Ingurugiroa eta estetika bereziki aintzat hartuko dira, ezta?**

GSI Taldeak beti egin izan du garapena eta eraikuntza iraunkorraren aldeko apustua, baita eraikin bioklimatikoaren aldekoa ere; ingurugiroarekiko errespetua eta material birziklagaiak tartekatuz, betiere, energia aurreztu eta bizilagunen ongizatea areagotzeko.

Gure enpresan arkitekto talde entzutetsua dugu. Hauek, urteak daramatzate eraikuntza iraunkorra eta eraikuntzen estetika moduko kontzeptuak uztartuz.

**Etxebizitzen salneurria eta ordaintzeko modua edonorentzako eskuragarria izango al da?**

Etxebizitzen prezioak guztiz lehiakorak izango dira, kalitate/kostu erlazio harrigarriekin. Bestalde, ohikoa dugunez, erraztasun guztiak eskaintzen ditugu gure promozioetan ordaintzerako orduan.





**230.000 €-tik**  
garaje eta trasteleku barne  
(38.300.000 pta.)

**48 etxebizitza, 2 eta 3 gelakoak**

**117 garaje eta 76 trasteleku**

**ELGOIBAR**



Argibideak:  
INFOLUR  
Antonio Arrillaga, 1 behea  
20870 Elgoibar

**Tfn.: 943 74 80 92 ■ Fax: 943 74 82 42**



**info@infolur.net - www.infolur.net**

Construimos sueños

## BALLANTINES SNOWBOARD CROSS TXAPELKETA

### Mikel Gorriti Snowboarder onenen artean

**M**eritu handiko bosgarren postua eskuratu zuen Mikel Gorritik Baqueira-Beret eski estazioan jokatu zen Ballantines Snowboard Cross txapelketan. Bosgarren postuak garrantzi handiagoa du, aurretik geratu zirenen maila eta izena kontutan hartuz gero: Munduko txapelketan parte hartzen ari diren bi frantziar, Turineko Negu Olinpiadetatik etorri berri den Ibon Idigoras zarauztarra eta iazko irabazlea. Lasterketak izan zuen izugarriko mailaren adierazgarri da, aurreko urteetan finalera iritsi den jendea igandarako sailkatu ezinik geratu zela. Hor-taz, elur oholarekin etorkizun handia

duela frogatu zuen 19 urteko elgobar-tarrak.

Jauzi, oztopo eta peraltez osatutako pista batetik jaiste da proba honen fun-tsa. Lehen eguna, zapatua, sailkapenera-ko eguna izaten da; partehartzaileek er-lojuaren kontrako jaisiera egin behar du-te bakarka. Domekan, 16 bizkorrenak launakako lasterketetan parte hartzen dute, bezperako sailkapenaren arabera taldekaturik. Ekaitz Isasi elgoibartarrak ere parte hartu zuen proban eta lehen hamarretan sartzea lortu zuen honek ere. Denboraldi biribila burutzen ari den Mai-te Maiora mendaroara, beriz, 8. postuan sailkatu zen emakumezkoen mailan.



### Morkaikoren zeharkaldiko eski irteera zapuztu zuen eguraldiak

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendiko eskiekin zeharkaldia antolatu zuen estrainekoz joan zen asteburuan, baina eguraldiak eskiatzaileen planak izorratu zituen. Lehen egunean ordu batzutan mendian gora egiteko aukera izan zutela adierazi digute, baina behelaino eta euriak ez zien aurrera egiten laga. Bigarren egunean elur haize bortitzarekin esnatu ziren. Mendira joateko kondiziorik onenak ez zirela erabaki eta etxera itzuli ziren eski gosez. Asteburu honetan, domekan hain zuzen, Aralar aldera joango dira Morkaikokoak. Hurrengo irteera, beriz, udaberrian, apirilaren 30ean izango da Ireber aldera.

### Jaioberrientzako igeriketa ikastaroak martxoaren 25etik aurrera

Udal Kirol Patronatuak jaioberriei zuzendutako igeriketa ikastaro berria antolatu du. Ikastaroa martxoaren 25ean hasiko da eta bertan hiru hilabete eta hiru urte bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute. Saioak Olaizaga kiroldegian egingo dira, zapatu goizetan. Izena emateko epea martxoaren 13tik 22ra egongo da irekita. Dena den, informazio gehiago eskuratu nahi duenak 943 74 44 15 telefonora dei egin dezake..

### Spinning monitore agiria euskaraz eskuratzeko ikastaroa



Debaroko Udaletako Euskara eta Kirol Zerbitzuek, Kirola Euskaraz egitasmoaren barruan, spinning-eko 1. mailako monitore agiria eskuratzeko euskarazko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa martxoaren 11n, zapatuan, izango da Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Matrikularen prezioa 50 eurokoa izango da Debaroko kirol zerbitzuetako bazkideentzat eta 60 eurokoa bazkide ez direnentzat. Diru samerak Bankoan egin behar dira, 0138 0005 16 0010325161 kontu zenbakian. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko Oñatiko kiroldegira deitu (943 71 63 75) eta Gerardogatik galdetu..

XVII. LILATOIA

# Haizeak eta hotzak ez zituen Lilatoiko partehartzaileak kokildu



Urteik urtera hasten ari den proba da Lilatoia. Duela 17 urte emakume batzuren ekimenaz, emakumeentzako sortutako proban, 672 lagunek parte hartu dute aurten, iaz baino 118 emakume gehiagok. Emakume elgoibartarrek Donostian egiten den lasterketa honetan parte hartzeko ohitura handia dute eta urtero 20 lagunengatik bueltan ibiltzen da bertaraten di-

ren elgoibartaren kopurua. Aurten 19 emakume izan dira Donostiako haize bortitz eta hotzari aurre eginez 5 kilometroko ibilbidea burutu dutenak. Haizea Emakume Taldekoek inoiz baino ikusle eta partehartzaile gehiago izan zirela adierazi digute eta gero eta jende gazteagoa ikusten dela proban. Guztira, 248 izan ziren partehartzaile beteranok.

## 64 neska-mutilek parte hartuko dute IX. Pilota Egunean

Elgoibar Ikastolak Euskadiko Kutxaren babesarekin urtero antolatzen duen. Pilota Eguna zapatu honetan, martxoaren 11n, egingo da Ikastolako frontoian. Bertan, goizeko 10:00etatik aurrera, sei eta hamalau urte bitarteko 64 neska-mutil ariuko dira lehian. Partidak bikoteka eta 12 tantora jokatuko dira. Besteak beste, gaztetxoaren artean esku pilotarako zaletasuna piztea du helburu Pilota Egunak. Ikastolako frontoia intentzios betetako pilotari txikiz beteko da zapatu honetan



## Kiroldagiko igerilekuen ordutegi berria

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du martxoaren 9tik aurrera Olaizaga Kiroldagiko igerilekuak ordutegi berria izango duela.

Horrela, bai goizean eta bai eguerdian ordu erdi lehenago irekiko dira igerilekuko ateak. Ordutegi berria honakoa

izango da: astelehenetik ostiralera: 7:00etatik 13:30era eta 14:30etik 21:30era. Zapatu eta domeketan ohiko ordutegia mantentzen da. Neuri hau erabiltzaileen eskaerei erantzuna emateko asmoz hartu da, Kiroldagiko ardura-dunen esanetan.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

- Lagun Onak 2 - Haundi 0 (3. maila)
- Elgoibar 0 - Lagun Onak 2 (1. erreg.)
- Elgoibar 1 - San Martin 0 (1. erreg.)
- Elgoibar 2 - Urola 2 (1. erreg.)
- Zarautz 1 - Elgoibar 4 (Inf. A)
- Elgoibar 1 - Sporting Herrera 1 (Inf. B)
- Aloña Mendi 4 - Elgoibar 0 (Neskak)
- Elgoibar 2 - Ordizia 0 (Neskak F-8)

### ESKUBALOAIA

- Tecnifuelle 26 - Zarautz 23 (Senior mut.)
- Pneumax 26 - Aiturri 16 (Jub. mut.)
- Umobitza 26 - Arrate 19 (Kad. mut.)
- Urola 43 - ANTT Sofilan 18 (Sen. mut.)
- Urdaibai 24 - Lojantzi 29 (Kad. mut.)
- Cometel 18 - Leizaran 16 (Jub. nesk.)
- Pagoaga 21 - Arrate 17 (Kad. nesk.)
- Olasa 31 - Pulpo 10 (Inf. nesk.)
- Zarautz 15 - Aterpe 16 (Inf. nesk.)

### ESKU PILOTA

- Lagunak (Ula./Tri) 22 - Eibar 5 (2. nag.)
- Goierri 22 - Lagunak (Arib./Salegi) 3 (2. kad.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

- Zapatua, 11
- 12:30 Elgoibar - Real Sociedad (Inf. A)
- 16:30 Haundi - Aurrera Vitoria (3. maila)
- Domekia, 5
- 10:30 Elgoibar - Hemani (Inf. B)
- 12:30 Elgoibar - Zalla (Jub.)

### ESKUBALOAIA Kiroldegian

- Zapatua, 11
- 09:00 Aterpe - Mutrikuarrak (Inf. nesk.)
- 17:30 Lojantzi - Urola (Sen. nesk.)
- 19:00 Umobitza - Urola (Kad. mut.)
- Domekia, 12
- 10:00 Tecnomeca - Jauja (Kad. mut.)
- 11:30 ANTT Sofilan - Leizaran (Senior mut.)

[

## SALMENTA

📍 Pedro Muguruza kalean etxea alokatzen dut. **S 636 27 72 82 (18:00-21:00)**

📍 Etxea salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko moduan. 71m<sup>2</sup> **S 943 74 3716/660 88 40 60 (Mancebo)**

📍 Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukaldea jantzita, su baja, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. **S 670 251 263**

📍 Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berritua. 168.200 euro (28 milioi pezeta).

**S 943 748448/636571111**

📍 Etxea salgai Santa Klara 26an. Altzariekin, bizitzera sartzeko

moduan. **S 610 68 41 64**

📍 Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, sukalde berritua, komuna eta egongela. Prezio interesgarria. Garaje itxia aukeran. **S 686 22 44 38**

📍 Arregitorren pisua salgai, garaje eta ganbararekin. 93,49m<sup>2</sup>. Hall, egongela, bi komun, 3 logela eta sukaldea. Guztiz berritua. **S 943 743915/678287847**

## ALOKAIRUA

📍 Pisua hartuko nuke alokairuan. **S 656 61 28 34**

[ GARAJE eta LOKALAK ]

📍 Marradun garajea alokatzen da Ametsa parean.

**S 615 78 78 57**

📍 Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. Bi auto kabitzen dira. 60 euro. **S 699 81 25 66**

📍 Marradun garajea salgai Santa Ana 6an, Ametsa parean. **S 615 70 78 57**

📍 Mendaron garaje itxia alokatzen da. Garagartzan. 40m<sup>2</sup>. **S 620 036 738**

📍 Garaje itxia salgai Urasandin, Anayak poligonoan.

**S 943 74 09 80/636 20 51 89**

📍 Garaje marraduna alokatzen da Pedro Muguruza 11n. Merke. **S 943 53 16 48**

[ BESTELAKOAK ]

📍 Lur saila erosiko nuke bide edo errepide batetik gertu.

Hektarea bat inguru. **S 661 181 622**

📍 York Shire arrazako txakurkumeak salgai. **S 647 81 62 56**

📍 Bi armairu handi salgai. Bi hilabete. Txuriak. Haritz egurra. **S 645707700/943740226**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragakia lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 eta alokairua 8. Autoak 8. Eta bestelakoak 5. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Neska lanerako prest. **S 676 444 171**
- Emakume gaztea tailarrean edo garbiketa lanak egiteko prest. **S 628 684 435**
- Mutila peoi bezala lan egiteko prest. **S 943 53 15 53/678 342 297**
- Elgoibarko 4 neska propaganda banatzeko prest. **S 610 95 34 34**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **S 606 64 22 84**
- Mutila kamarero, tailerreko laguntzaile edo garbiketarako prest. **S 660 92 75 66**
- Emakumea garbiketa lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **S 660 92 75 66**
- Emakumea garbiketa lanetarako prest. **S 639 42 34 93**
- Neska umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa lanak egin edo sukaldari laguntzaile izateko prest. **S 600 28 27 93**
- Mutila harategian lan egiteko prest. **S 615 00 83 48**
- Gizona pintore edo peoi lanak egiteko prest. **S 656 61 28 34**
- 37 urteko mutila enkofratzaile edo 2. mailako igeltsero

moduan lan egiteko prest.

- S 638 361 395 (Josu)**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo interna moduan lan egiteko prest. Informeak ditut eta bertakoa naiz. **S 620 674 034**
- Neska gaztea lanerako prest: garbiketa, umeak edo nagusiak zaindu... **S 686 23 47 86**
- Kamarero euskalduna barran lan egiteko prest. **S 620 04 94 20**
- Emakumea gauzez eta goizez nagusiak zaintzeko prest. **S 943 17 28 96**

### ESKAIINTZA

- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta arratsaldez umea zaintzeko. Ekainetik aurrera. **S 943 53 11 23/ 685 70 32 22**
- Esperientziadun estetiziana behar da Elgoibarren lan egiteko. **S 653 701 647 (21:30etik aurrera)**
- Ikastolen Elkarteak aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu. **S 944354340 (Amaia)**
- Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da. **S 943 74 02 41**
- Asteburuetarako kamarero euskalduna behar da. **S 670 654 921**



- Goratu CNC 8050 makinarako langilea behar da. **S 639 52 48 50**
- Debako enpresak enkofratzaileak behar ditu. Eref. 162006003074
- Zarauzko enpresak harerarako langilea behar du. Eref. 162006002484
- Oñatiko enpresak aparejadorea behar du. Eref. 162006002991
- Zumaiako enpresak dietista behar du. Eref. 162006000313
- Elgoibarko enpresak sukaldaria behar du. Eref. 162006002851
- Azpeitiko enpresak pintorea behar du. Eref. 162006002955
- Oñatiko enpresak arotza behar du. Eref. 162006000793

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentrura deitu. **IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32** telefonora.

- Gipuzkoako enpresak adminis-

traria behar du.

Eref. 162006002847

### ABISUAK

- Otsailaren 26an, Sigman, Grupo Eulogio Estarten, emakumezko erlojua galdu nuen, Lotus markakoa. **S 943 74 20 51**
- Haizeak txamarra berdea eramane dit bakoitik, San Roke kalean. **S 943 74 44 45**
- Karitasek jaioberrientzako jantziak eta kotxe kapota behar ditu. **S 943 74 15 09**
- Argazki kamera digitala galdu nuen otsailaren 25ean Plaza Handian. Argazkiak oso garrantzitsuak dira. Bidali mesedez [mgguede@yahoo.es](mailto:mgguede@yahoo.es) helbidera. **S 625 70 90 17**
- Argazki kamera digitala galdu nuen inauterietako zapatuan. Pentax markakoa da. **S 628 58 45 35**
- Urtarrilaren 10ean Madalako errotandan istripua izan nuen, eguerdian. Lekukoan bila nabil. **S 680319002/943744062**

## [ ZORIONA ]



📍 Zorionak **Ismene** bihar zure eguna delako. Ondo pasa zure egunean. Familiakoan eta bereziki, Julen eta Ikerren partez.



📍 Zorionak **Dune** martxoaren 12an 2 urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, izeba, aitxita eta amamaren partez.



📍 Zorionak **Ion** gaur, 8 urte egin dituzulako. Nerea, Gorka eta familiako guztien partez.



📍 Zorionak **Jon** martxoaren 15ean urtebete egingo duzulako. Familiako guztien partez patxo handi bat.



📍 Zorionak **Aner** martxoaren 8an 9 urte egin zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, aitxita, amama



eta Laidaren partez. 📍 Zorionak gure etxeko mutil jatorrari. Hamaika muxu haundi, gurasoen eta Gillemoren partez.



📍 Zorionak **Adei Agirrezabala** atzo bi urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



📍 Zorionak **Iker** 8 urte egin dituzulako. Zutaz asko gogoratzen den hirukotearen partez. Ea asmatzen duzun zein



garen. 📍 Zorionak gure etxeko bihurriari, bere 2. urtebetzean. Muxu handi bat etxekoan eta



bereziki, alainen partez. 📍 Zorionak **Nekane** martxoaren 14an 7 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki,



Asier eta Maialenen partez. 📍 Zorionak **Jon** bihar 5 urte beteko dituzulako. Familiakoan partez.



📍 Zorionak **Ane** martxoaren 12an 10 urte egingo dituzulako. Familiakoan



📍 Zorionak **Irati** martxoaren 7an 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat Urko eta familiako guztien partez.



📍 Zorionak **Unax** atzo bi urte potolo bete zenituelako. Muxu handi bat Ikastolako laguntxoaren partez.



📍 Zorionak **Mikel!** Zure eguna ondo pasatu duzulakoan, muxu asko Ikastolako laguntxoaren partez.



📍 Zorionak **Lorea eta aita**txo, zuen egunean. Amatxo eta Unairen partez.



### BEKAK

2006KO UDAN INGELESA IKASTEKO UDALAKUETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK

Ingelesez garatutako 2 asteko udaleku batean parte hartzeko 800 laguntzako deialdia Hezkuntza eta Zientzia Ministerioren eskutik (uztailaren 23tik irailaren 3ra). Baldintzak: 2005-06 ikasurtean fondo publikoekin ordaindutako ikastetxeetan honako mailetan matrikulatuta dauden ikasleak: Lehen Hezkuntzako 5. maila; Lehen Hezkuntzako 6. maila; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila. Epea: 2006-

03-30. Informazioa: 902 111225.

### IKASTAROAK

BOLUNTARIOEN PRESTAKUNTZA TOPAKETA

Boluntario-lanari buruzko oinarriko prestakuntza-topaketa. Martxoaren 31n, 11:00-13:00. Boluntario-lanaren definizioa, ezaugarriak, motibazioa, konpromisoa, eskubideak eta betebeharrak, etab. landuko dira. Baldintzak: Gazteak, boluntarioak eta irabazi asmorik gabeko erakunde batean boluntario gisa lan egin nahi izatea. Epea: martxoak 26. Informazioa: 943 428013

### LANA

INFORMAZIOKO ETA IZAPIDEETARAKO 5 ERAGILE ARRASATEKO UDALERAKO 4 lanpostu txanda librekoak izango dira eta bat minusbaliatuentzat. Baldintzak:

Eskola Graduata, LH I edo baliokidea eta 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: 2006-03-14. Informazioa: 943 7909900

### LEHIAKETAK

II. EUSKARAZKO HITZ EDERREN LEHIAKETA

Urtxintxa Eskolak antolatuta. Baldintzak: 18 urte artekoak. Sariak: 8 pertsonarentzako egonaldia Gortizeko Aterpetxean (Bizkaian). Hitz ederrenarekin kamixetak diseinatuko dira. Hitz ederrak ondoko web

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
e-posta: [elg\\_gzerbitzua@terra.es](mailto:elg_gzerbitzua@terra.es)

**5** Astartetik ostiralera  
16:00-19:00



## [ OKINDEGIA ]

12 igandea BOLINTXO



## [ FARMAZIAK ]

<p>10 11 12 13 14 15 16 17</p>	<p>GUARDIA 24 ORDUZ Bidasolo Etxeberria (<i>Errosario</i>) Etxeberria (<i>Errosario</i>) Fernandez Yudego Zabaleta Etxeberria (<i>Errosario</i>) Ibañez</p>	<p>KANPOKO FARMAZIAK IBÁÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38</p> <p>FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42</p> <p>ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84</p>
--	---	--

\* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.



## [ AUTOBUSAK ]

ELGOIBAR - DONOSTIA  
**Astegunak:** 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40  
**Larunbatak:** 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00  
**Igandek eta jaiegunak:** 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

DONOSTIA - ELGOIBAR  
**Astegunak:** 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45  
**Larunbatak:** 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45  
**Igandek eta jaiegunak:** 12:30, 17:30, 19:30, 20:45  
 PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA  
**Astegunak:** 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR  
**Astegunak:** 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.  
**Asteburuak eta jaiegunak:** 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

## [ 10 BARIXAKUA ]

19:00 APOLINAR  
 ALDALURREN MARGO  
 ERAKUSKETAREN  
 INAUGURAZIOA  
 Kultur Etxeko erakusketa gelan  
 Martxoaren 26ra arte  
 22:15 ANTZERKIA  
 Antzezlanak: "Busco novio formal... que marido ya tuve"  
 Taldea: Ambigü antzerki taldea  
 Herriko Antzokian  
 Antolatzailea: Udaleko Kultura saila, Haizea Emakume Taldearen

## [ 11 ZAPATUA ]

10:00 IX. PILOTA EGUNA  
 Ikastolako frontoian  
 Antolatzailea: Elgoibar Ikastola Ikastolako frontoian  
 16:00 ELGOIBARKO V.  
 AURRESKU ETA SOINU ZAHAR  
 TXAPELKETA  
 B saila (11-15 urtekoak)  
 Mutilek: "Desafioa" eta "Alpargatak"  
 Neskek: "Ehun dukat" eta "Zortzikoa"  
 Herriko Antzokian  
 Antolatzailea: I Bereziartua Musika

# eteo

FTFO, KOP F

## GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

### ESKAINITAKO TITULUAK

IDAZKARITZA  
 ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK  
 NAZIOARTEKO MERKATARITZA  
 MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINGA

ATE Irekiak Martxoaren 14an 13:00etan

Zatoz gu ezagutzera!

### AUTOBUS LINEA BERRIA (2 ibilbide):

- Azpeitia Azkeltia Elgoibar Eibar Orat
- Zornatza-Durango-Elorrio-Oñati



Larrea sarea, 16 • 20500 OÑATI (Gipuzkoa)  
 Telefonoa: 943 71 80 09 • Fax: 943 71 81 82

informazio gehiago mundragoan.edu • www.eteo.mundragoan.edu



eta Dantza Eskola  
**21:00 AFARI HERRIKOIA**  
 Emakumearen Eguna ospatzeko  
 Sigma jatetxean  
 Afalostean, Maite Franko  
 aktorearen ikuskizuna  
**21:00 XI. BARRIKOTEA**  
 Kimetz Elkarte  
 Bertsolariak: Beñat Ugartetxe eta  
 Joseba Artza  
 Sagardotegiko menua: 18 euro  
 Tiketak: Txuri Beltz eta Jai-alai  
 tabernetan salgai

[ 12 DOMEKIA ]

**10:00 "RISATERAPIA  
 IKASTAROA**  
 Aubixa baserian  
 Informazio gehiagorako: 943 74  
 17 15 telefonora deitu  
**11:00 ELGOIBARKO V.  
 AURRESKU ETA SOINU  
 ZAHAR TXAPELKETA**  
 A saila (7-11 urtekoak)  
 Mutilek: "Agurra" eta "Alpargata"  
 Neskek: "Txakolin" eta "Agurra"  
 Herriko Antzokian  
 Antolatzailea: I Bereziartua Musika  
 eta Dantza Eskola  
**16:30 "BAZEN BEHIN ZIRKOA"  
 IKUSKIZUNA**  
 Taldea: Zirika Zirkus Antzerki  
 Teatroa

[ 13 ASTELEHENA ]

**18:00 LABEKO ESMALTE  
 IKASTAROAREN HASIERA**  
 Informazioa eta izena emateko:  
 Aita Agirre plaza erdiko atea, 2.  
 pisua.  
 Martxoaren 30era arte  
 Antolatzailea: Egur arte tailerra

[ 14 EGUENA ]

**10:30 "MITOEN SINFONIA"  
 KONTZERTU PEDAGOGIKOA**  
 "Escudero maisua" abesbatza eta  
 ganbara orkestraren eskutik  
 Herriko Antzokian  
 LH 2tik 6rako ikasleentzat  
 Antolatzailea: I Bereziartua Musika  
 eta Dantza Eskola

[ 17 BARIXAKUA ]

**22:00 BIDEO FORUM-A**  
 Kultur Etxeko hitzaldi gelan  
 Antolatzailea: Haizea Emakume  
 Taldea

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«En la cuerda floja»  
 10, barixakua: 22:15  
 11, zapatua: 19:30-22:15  
 12, domekia: 19:30-22:15  
 13, astelehena: 21:30  
 «Exils» (Z.K.)  
 16, eguena: 21:30  
 «Volando voy» (Z.K.)  
 17, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Munich»  
 10, barixakua: 18:30-22:00  
 11, zapatua: 18:30-22:00  
 12, domekia: 18:30-22:00  
 13, astelehena: 18:30-22:00  
 14, martitzena: 18:30-22:00  
 15, eguaztena: 18:30-22:00

EIBAR, RIALTO

«Orgullo y prejuicio»  
 10, barixakua: 19:30-22:15  
 11, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
 12, domekia: 17:00-19:30-22:15  
 13, astelehena: 19:30-22:15  
 14, martitzena: 19:30-22:15  
 15, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen  
 emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«En la cuerda floja»



Zuzendaria: James Mangold.  
 Antzezleak: Joaquin Phoenix, R. Witherspoon.  
 1929ko Depresio Handiarekin Arkansasen has-  
 ten da filma, Johnny Cash musikariaren iturbu-  
 ruetan arakatuz. Apartzero umil baten semea  
 izatetik rock and rollaren aintzindariarekin: Elvis  
 Presley, Carl Perkins, Roy Orbison, Jerry Lee Le-  
 wis... mitikoekin egin zituen biretara jauzi egiten  
 du pelikulak, 1968an Folsomeko prisondegian  
 eskaini zuen kontzertu ahaztezinarekin amaitze-  
 ko. Momentuko artista izatera heldu zen Cash,

«Exils» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Tony Gatlif.  
 Antzezleak: Romann Duris, Lubna Azabal.  
 Zanak ideia zoro xamarra proposatuko dio Nai-  
 ma neskalgunari; Frantzia eta Espainia gurutza-  
 tu eta Argelia ezagutu, gurasoek ihesean laga  
 behar izan zuten jaioteria. Road-movie edo ere-  
 pideko filma honetan Argeliarako bidea eta to-  
 kian tokiko musikak uztartuko dira. Pelikula fran-  
 ziar honek sustraian bila egindako bidaiaria propo-  
 satzen digu, eta etorkinek egiten duten alderant-  
 ziko bide jarraituz norbere nortasunarekin topo  
 egingo dute bi gazteek.



**1950** urteko erretratu hau **Xabier Gorostizak** laga digu. "Umore ona" izeneko koadrila agertzen da. Garai hartan herriko gazte askok jokatzeko futboleko Plaza Txikian eta koadrilen arteko futbol txapelketa garrantzitsuak jokatzeko bertan. Urte honetan koadrila hau izan zen txapelketa, "Exporting" taldearen kontra 3-1 irabazi ondoren. Bi talde hauen arteko norgehiagokak oso gogorak izaten ziren, eta beste bi txapelketatan "Exporting" taldea izan zen irabazlea. Gogora ditzagun zein diren "Umore ona" koadrilako mutil hauek. Goian, ezkerretik eskumara: **Sabin Txurruka, Luis Mari Barandiaran, Pedro Osoro, Felix Bergua, Ramon Zabala, Luis Maria Riaño, Luis** (galiziarra), **Jabier Andonegi, Jose Luis Elizburu, Iñaki Jauregi, Jose Antonio Iriondo, Jesus Ansola, Luis Maria Garate, A. Corral** (bilbotarra). Erdiko ilaran: **Jose Maria Iglesias** eta **Xabier Gorostiza**. Behean, makurtuta: **Alberto Solas, Jose Inazio Murua** ( ), **Luis Gurrutxaga, Ramon San Martin** ( ), **Jesus Mari Alvarez, Tomas Barandiaran, Jose Mari Gurrutxaga, Jose Luis Lasa** eta **Alberto Ortueta**.



## I. URTEURRENA

2005eko martxoaren 7an, 83 urte zituela hil zen **Ramon Maiztegi Iriarte**ren oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 11, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



## ESKERTZA

2006ko martxoaren 4an, 82 urte zituela hil zen **Jose Beneitez Vacas**en sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





### Txuri Urdinera irteera

**Noiz:** martxoaren 18an  
**Lekua eta ordua:** Tren geltokian.  
Irteera 12:00etan, itzulera 20:00etan  
**Norentzat:** LH 4-5-6  
**Izena emateko epea:** otsailaren 27tik martxoaren 13ra  
**Prezioa:** 10 €



Izena emateko: **ELGOIBARKO IZARRA** - Ubitarte, 4 - Tel.: 943 74 16 26

## GAZ-T

AISIALDI TALDEA

### Zaragozako jolas parkera irteera

**Noiz:** martxoaren 25etik 26ra  
**Lekua eta ordua:** King-Kong-eko autobus geltokian.  
Irteera goizeko 8:00tan, itzulera arratsaldeko 19:00etan.  
**Norentzat:** DBH 1-2-3-4  
**Izena emateko epea:** otsailaren 27tik martxoaren 13ra  
**Prezioa:** 60 €



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era  
15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behe**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

4. EDIZIOA

# IMH SARIAK

Ikasle ohi aipagarria  
2005-2006eko ikaslea  
Fabrikazio Arloko ikaslea,  
2005-2006 ikasturtea



## ■ Helburua

Makina Erremintaren sektoreari egiten dioten ekarpenagatik esker ona adierazi ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei.

## ■ Ikasle ohi aipagarria nola proposatu

Proposaiezaguzu aurtengo ikasle ohi aipagarria. Horretarako bi modu dituzu:

- Telefonoz: 943 748 265 (Maria Ventura).
- Internetez, [www.imh.es](http://www.imh.es) guneako formularioa osatuz.

Baldintzak eta informazio gehiago [www.imh.es](http://www.imh.es) orrian.

## ■ Sariak banatzeko ekitaldia

Data: 2006ko martxoaren 31  
Ordua: 12.30  
Tokia: IMHko Areto Nagusia

Hautagaia proposatzeko sartu gure webean  
[www.imh.es](http://www.imh.es)

Babesleak



Kolaboratzaileak

ALKORTA BROCKHAUS · AUTOMATION ORIA S. L. · BARREDO · BERDIN S. L. · BIAL MEKANIZAZIOAK S. L. · BIELE S. A. · CRISTALUX LIMPIEZAS · DELTECO S. A. · ELAY S. A. · FAGOR ARRASATE, KOOP. E · GAINDU S. A. · GLUAL HIDRAULICA S. A. · GRUMAL S. L. · IBARMIA · IMS CONSULTORES · INDUSTRIAS ALGA S. A. · INDUSTRIAS KOKATU S. L. · INDUSTRIAS LAIP · INDUSTRIAS METALA S. L. · INTZA S. A. · KONDIA S. L. · MAZA · MECANIZADOS GURRUTXAGA · PIXEL S. L. · SAMMIC S. L. · SIERRAS SABI S. A. · T.M NORMA S. A. · TALLERES AIBE S. A. · TEKNIKER · ZEHATZ S. L.



Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 · E-20870 Elgoibar, Gipuzkoa · Tfnoa.: 34 943 748 265 - 34 943 744 132 · Faxa: 34 943 744 153 · [imh@imh.es](mailto:imh@imh.es) · [www.imh.es](http://www.imh.es)